

1 Larraitz

Euskaldunon Egunkaria, 1995-01-17.

Hemen, Larraitzen, piztu zizkion naturak Joxemi haurra zela, argi berriak begietan; hemen izan zituen, gurasoen babesean, Koro arrebarekin jolasaldiak, eta berekin eraman zituen gordeak bizitza guztian. Oroimen hauek etxeko euskaraz bizituak izan ziren, hain zuzen. Ez zaio belarrietako hots gozo hau isilduko geroztik.. Familiako kuadro honetatik euskaldun langile izan zen aita joan zitzaion lehendabizi, eta gero, laster, lasterregi, amatxo galtzea zer den ikasi zuen. Zorionez, dagoeneko piztuak zituen su berriak: Osteizka, emaztea, eta haurrak: Maddi eta Jon, eta hauek hemen uztera behartuta aurkitu zenean, heriotza bera den baino kinka larriagoa den honetan, dator berriz bizi-bizi betirako gordea dagoen Larraitzeko deia.

Eta hemen bere errautsak bertan zabaltzea eskatzen du, denek jakin dezaten non aurkitu.

Joxemiren familia, bitarte honetan, hasi egin da etxetik kanpo; batez ere hauen artean gertuen sentitzen dituenak Argia euskaldunaren lankideak eta irakurleak dira. Nabari zaio lehentasun hau. Hemengo lagunak ditu kide estu eta anai.

Eta gero hemen egunkari euskaldun baten ametsa sortzen denean, taldekako ekintza da. Eta zera da nabarmentzen dena lanerako ibilbide honetan, nahi gabe ere Joxemiren mintzo isila, ikuspegiaren zabal eta zehaztua, bibotedunaren haur aurpegia agertzen dela denen artean asmoak ausarten eta tinkoen defendatzen.

Jakin du Argiako taldea barrurantz integratzen eta ekintza berrietarako ilusionatzen.

Hau behar zen, hain zuzen, zabala, tolerantea, euskaldun guztion Egunkaria izateko bokazioa zuen projektua aurrera ateratzeko. Kalitate asko zituen. Giza alderdiari dagokionez, ageria zuen duintasun zail hori talde berria sortu eta sortutakoari eusteko; ez artifizialki, gizatasuna berezko zuelako baizik; bere zatia emanez kideari zegokiona irabazteko, elkarrekin emandako pausoa tinkoa izan zedin. Bazekien bere aitormenak egiten, elkarrekin osatu behar zen Mankomun horrek lortzeko ekintzaren norabidea galdu ez zezan.

Hau izan da Euskaldunon Egunkarian orain arte izan dugun esperientzia onuragarria.

Eredu hau zor diogu bereziki Joxemiel Zumalaberi.

Ez zituen, ez genituen, halere denak irabazi. Ez dugu Jaurlaritzako gure agintariekin espero genuenik lortu. Eta ez genuen oparirik eskatzen, justizia hutsa baino.

Hemen, ahalegin honekin joan da Joxemi gure artetik.

Baina bere eredia jaso dugun langile orok aurrera jarraituko dugu hark erakutsitako bidetik Euskaldunen Egunkaria bizi eta hasi dadin.